



KURSAAL

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Centro Kursaal – Kursaal Elkargunea S.Ako Laneko Arriskuen Prebentzio Politika

Erakundeak, langileen segurtasunaren eta osasunaren kudeaketa eraginkorrean aurrera egitearren, gainontzeko prozesuekin batera garatuko dituen politikaren printzipio gidariak zehaztu ditu.

KURSAAL Elkarguneko zuzendaritzak, bere langileen zein enpresa kolaboratzaileen langileen bizitza, segurtasuna eta osasuna babesten duten funtsezko printzipioetan oinarriturik zehazten du bere “Lanerako Segurtasun eta Osasun Politika”, laneko arriskuak prebenitzeko eta **laneko baldintzak etengabe hobetzeko** helburua duen kultura inplementatu dadin.

Horretarako jarraian aipatzen den ildo estrategikoa etengabe betetzeko konpromisoa **bere gain hartzen du** zuzendaritzak:

Indarrean dagoen araudia eta inguruneko aukerak gainditzen dituen ikuspuntu etikoa hartu. Arduraz jokatu gune bereziako jardueraren edo ezohizko jardueren ondorioz elkarreaginezko harremanak ditugun pertsonekin edo talde sozialekin (langileekin, bezeroekin, hornitzaileekin). Laneko arriskuak murriztu lan baldintzak hobe daitezzen.

Aurreko printzipioekin bat eginik, KURSAALEK ondorengo **betebeharrak** bereak egiten ditu:

1. KURSAAL Elkarguneko kudeaketan LAP sistema integratu prebentzioa elkargunean garatzen diren jarduera guztietan barneratu dadin, batez ere bezeroengan sor daitezken arriskuen segurtasunean eta horri dagokion koordinazioan.
2. Prebentzio kudeaketarako eredu integratua garatu, aplikatu eta mantendu laneko baldintzak etengabe hobetzeko eta laneko segurtasunean eta osasunean aurrera egiteko.
3. Laneko segurtasun eta osasun maila altua erdietsi, lan arrisku prebentzioan aplikagarriak diren zein legezko baldintzak zein onetsitako beste edozein baldintzak beteko dituela hitzemanaz.

Zurriola Hiribidea, 1
20002 Donostia - San Sebastián

Tlf: +34 943 00 30 00
Fax: +34 943 00 30 01
Mail: kursaal@kursaal.org

www.kursaal.org

4. Gure jardueren prebentzio planak garatu, aplikatu eta eguneratu LAP helburuak ezarriz eta berraztertuz.
5. Langile guztiak parte hartu dezatela eta jakin gainean egon daitezela bermatu lan arrisku prebentzioari dagozkion banako betebeharrak ohartaraziz, KURSAAL osatzen dutenen artean politika hau hedatuz eta doakien eskura jarritz.
6. Prebentzio politika garatzearren, beharrezko prestakuntzan aurrera egin.
7. Gure hornitzaileak, esleipendunak eta azpi-kontratatistak lan baldintzen hobekuntzari dagozkion konpromiso aktiboan integratu.
8. Prebentzio politika hau garatu ahal izateko erakundeari beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak eskuratu.

Prebentzio politikako printzipioak martxan eta praktikan jartzen erakundeko langileek zein kanpoko prebentzio zerbitzuek parte hartu eta lagunduko dute enpresan lan egiten dugunon segurtasuna eta osasun maila egunez egun hobetu dadin.

Politika hau enpresa barnean hedatzeko baliabideak prestakuntza eta informazio saioak zein iragarki taulak izango dira. Doakien eskura dagoela berma dadin, erakundearen web orrian (www.kursaal.eus) argitaratuko da.

Etengabeko egokitasuna eta eraginkortasuna berma dadin, zuzendaritzak segurtasun eta osasun politika urtero berraztertuko du, prebentzio planak diosenaren arabera sistema berrikusten duenean.

Donostian, 2011ko apirilaren 4an



Iker GOIKOETXEA MENDOZA
Zuzendari Gerentea